

Bero-beroan

%65,70 euskara ikasten saiatu da

UNESCO ETXEAK *Erdaldunen euskara-
rekiko aurreiritziak eta jarrerak* izene-
ko ikerketa egin du Araban, Biz-
kaian eta Gipuzkoan. 600 erdalduni
egin die galdeketa. Emaitzen artean
deigarria da euskara ikasteko ahale-
ginez erantzun dutena. Ikerketa
kuantitatiboko %65,70 noiz edo
noiz euskara ikasten saiatu da. Gai-
nera, erdiak baino gehiagok euskara
ikastea gustatuko litzaiokeela adiera-
zi du. Hiru oztopo-mota aipatu
dituzte: hizkuntza zaila dela eta hel-
dutan ikastea ia ezinezkoa dela per-
zibitzea; euskara ikasteko modu
bakarra euskaltegira joatea dela pen-
tatzeara eta horretarako denborarik

ez izatea; eta euskalduntze-sistema-
ren helburu bakarra 'bikain' ikastea
eta azterketa bat gainditzea dela
uste izatea.

Ramon Etxezarreta Hizkuntza Politikarako sailburuorde

DONOSTIAKO UDALEKO kultura
ordezkari izan da orain arte urrestil-
larra (Azpeitia). Patxi Baztarrikaren
tokia hartuko du hemendik aurrera.
Kultura sailburu berriz, Blanca
Urgell euskalari eta filologoa izango
da. Gasteiztarra EHUKo Letren
Fakultatean irakasle da. Antonio
Rivera EHUKo Historia katedradu-
na Kultura sailburuordea izango da.

BAHEA

Euskal Kulturgintzaren
Transmisioa aditu-tituluaren
blogean Amelia Barquínek
hausnarketarako jarritako adibi-
dea: "Galdakaoko euskaltegi
bateko maila baxu batean nes-
kato beltz bat ikasten ari da.
Kurtso hasierako ariketa batean
denek esan behar dute nongoak
diren. Neskak Galdakaokoa dela
esatean, irakasleak erantzuten
dio modu adiskidetsuan hori
ezin dela izan eta eskatzen dio
benetan nongoa den esateko.
Neska haserretzen da (haserre
hori kurtso osoan zehar adiera-
ziko du) eta irakasleak ez du
ulertzen zergatik, berak zer egin
duen txarto".

Eusko Jaurlaritzak argitaratuta-
ko IV. Mapa Soziolinguistikoaz
Txerra Rodriguezek *Garaigoikoa*
blogean esanak: "Inkestaren
datuak 2006koak dira. Zergatik
tardatu dute hiru urte emaitza
horiek kaleratzen? Ez dut uler-
tzen, datuak 2006an ez ematea
ulertzen dut, inkluso 2007an.
Baina 2008an ez, eta 2009ko
apirillean? Ez dut ulertzen...".

José Antonio Pastor PSE-
EEren legebiltzarkide taldeko
bozeramaileak *Berrian* esanak:
"Mundu horrek [euskararen
munduak], euskara zabaltze eta
sustatze politiketan alderdi
sozialistaren laguntza izango du
beti, hizkuntzaren erabilera ele-
mentu garrantzitsua iruditzen
zaigulako herria egiteko. Mundu
euskaltzaleak argi eduki behar
du ez dugula euskararen kontra-
ko politika egingo, eta aintzat
hartuko ditugula garatzeko".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Sindikatu abertzaleen zatiketa harrigarria

Azken urteetan Maiatzaren Leheneko ospakizuna sindikatuen zatiketek markatu izan dute. Aldarrikapen berak izanik ere, bakoitzak bere manifestazioak eta errebindikazio festak antolatzen zituen. Ez zen hain arraroa eta harrigarria, zeren zatiketa horrek, gure herriko sindikatuen eguneroko jardura adierazten zuen nolabait. Zatiketak ez ziren soilik sindikatu abertzale eta estatualistei eragiten, abertzale eta estatualista orori baizik. Maiatzaren Lehenaren aurretik Laneko Osasun eta Segurtasunaren Eguna ospatu zen. Ba, lan istripuak salatzeko eta lan baldintza hobekaldutzeko egun hura ere sindikatuen zatiketa erabatekoarekin igaro zen. Sindikatu bakoitzak bere manifestazio, kontzentrazio edota mitina antolatu zuen. Azken urteetan, kasu honetan ere, sindikatuen zatiketa izan da protagonista. Beraz, hemen ere ez da arraroa ezta harrigarria ere jarrera hori.

Arraroa eta harrigarria da ordea, aurten gertatutakoa, batez ere sindikatu abertzaleen artean. Sindikalgintza abertzalea (ELA, LAB, ESK, STEE EILAS, HIRU, EHNE) batu egin da gauza larria bezain zaila den greba orokorra deitzeko, hilaren 21ean, enpleguaren alde eta patronalaren xantaiaren kontra. Mugarri historikoa. Testuinguru horretan, logikoena zen lan istripuen kontrako Nazioarteko Egunean eta Maiatzaren Lehenean bat egitea. CCOO eta UGT elkartuta agertu ziren eta argazki bateratu horren falta nabarmen geratu zen abertzaleen artean. Zer arrazoi dago 21eko greba orokorrera bat eginik joan eta egun batzuk lehenago zatiturik agertzeko? Joan den astean egon ez zen argazki bateratu hori oso onuragarria izango litzateke datorren greba orokorrerako!

Juan Mari Arregi

Legalitatea eta zilegitasuna, horra sakoneko arazoa

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ESPAINIAN hauteskundeak baleude, une honetan PPK irabaziko lituzke, hori zioen Espainiako egunkari irakurrienaren inkesta batek joan den asteburuan. PP-PSOEren arteko tartea hamarrenetan neurtzen da inkestan, baina krisi garai honetan, oposizioak gobernua baino egoera hobetoagoan dirala ataka estu honetatik etekina ateratzeko.

Espainiako Legebiltzarrean PP estu hartzen ari da Zapatero, oraingoa EAJren laguntzarekin. Eta lehia are eta estuagoa izango da krisiak okerre egin ahala -zantzu guztien arabera, hala izango bide da- eta hainbat hauteskunde hurbildu ahala, orain Europakoak eta 2011n udaletakoak.

Horrexegatik, besteak beste, gaitza egiten da sinestea EAeko egoera irla bat izango dela. Orain arte lortu dute, dena den, eta dena ikusteko badago ere, ez da samurra irudikatzea PSEk nola egin diezaiokkeen ihes biek adostutako testu -abertzaleekiko- erasokor eta frontistari. Sinesteko, beraz, ikusi egin behar. Eta Patxi Lopezek ere beharko ditu bere ehun egun horiek, eta horietan, eta ondorengoetan ere, oso posible da gauza askotan ez izatea jeltzaleek orain arte egindakotik

oso desberdina, batez ere politika ekonomiko eta sozialei dagokienean.

BESTELAKOA DA euskal abertzaletasunak eremu sinbolikotzat jotzen dituen horietan zer gertatuko den: euskara, hezkuntza, EITB, identitatea... Ramon Etxezarretaren izena dabil hizkuntza politikako sailburuordetzarako eta hor ikusten da euskararen mundua ez uxatzeko keinurik, baina berriz ere, gaitza da lotzen Etxezarretak egin dezakeen balizko politika eta PP-PSE akordioak euskararen inguruan esaten dituenak ezkontzea.


Egia da hizkuntzaren eremuan hitzartutakoekin ia edozer egin daitekeela, baina akordioaren doinua oso kezagarria eta mesfidagarria dela ere bai: orain arteko profilen politike-

tan inposaketak izan direla sumatzen da testu horretan, euskara inposatu egin dela iradokitzen da, gizartea bi hizkuntza komunitatetan zatitu nahi izan dela, sektarioki eta era alderdikoian erabili dela, enplegu eta funtzio publikorako gainbaloratua izan dela... Ez da samur sinestekoa ezpal horiekin euskararen sua egoki piztu

daitekeenik, baina edonork merezi du konfiantza tarte bat, areago aipatu diren izenek hizkuntza politika zuzenduko badute.



ETA-REN aurkako borrokan izango da handiena gobernu honen eragina, baina okerrera, biolentziaren deslegitimazioa eta "dena da ETA" politikak erabat nahastuko direlako, legez kanpoko ezker abertzalearen jardura politikoa jazartuz, presoekiko elkartasuna zigortuz, mobilizazio eta adierazpen eskubidea murriztuz... Hamaika esan eta egingo ditu, baina euskal gizarteko populazioaren gehiengoa nekez konbentzitu du legalitatea eta zilegitasuna berdina direla, edo aldaketa gizartearen gehiengotik iritsi dela. Nola sinistu hori Alderdien Legearen aurka egonda?





Olaberriako zirkuitua

GIDA ESKOLA • KARTINGa

Gainera auzoa, z/g
20212 OLABERRIA
(Gipuzkoa)
T 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com